



**tolosaldeko  
ataria**



galtzaundi

TOLOSALDEKO hitza®



2013-12-06 • 38 zenb.

Bixente Gorostidi

# Bertsozaletasuna piztuz

10-15

Indarkeria matxistaren aurkako I. udal protokoloa aurkeztu dute, Tolosan 4-5  
Zizurkil eta Orendaingo alkateak herrietako proiektuez hizketan 6-8  
A.Artolaren begirada emakumeen historiari 16-18 • Durangorako uzta 22-25

Hazlo tú mismo

# ALQUILER DE BOXES

OFERTA!  
ESKAINZA!

943 360850

Zergatik ordaindu hainbeste urteroko kotxearen, motoaren, furgonetaren edo kamionetaren azterketa edo olio aldatzea

### Hiru erataria egin dezakezu:

Zuk eginda, zuk gurekin ikasiz eginda edo guk eginda.

Deitu eta eskatu prezioak konpromisorik gabe  
943 36 08 50 edo [boxes@euromikels.com](mailto:boxes@euromikels.com)

# EUROMIKEL'S

N-1 errepidea. 441 km. 34 industrialdea • **Villabona** • Tel.: 943 360 850 • 609 40 67 40 • Faxa: 943 365 401  
[boxes@euromikels.com](mailto:boxes@euromikels.com) • [www.euromikels.com](http://www.euromikels.com)



## SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua  
24 orduetan

943 653 491  
943 653 874  
943 653 985  
943 806 020

Santa Luzia, 1-TOLOSA



## SANTAMARIA

### Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa
- Kirola egiteko ortopedia sail berria
- Osakidetzarekin hitzarmena
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610  
**Tolosa**



## ataria Internet

Jarraitu albisteak Twitter bidez  
*@tolosaldeataria*



*Tolosaldeko Ataria*  
orrialdeari eman "atsegin dut"



Sartu gure webgunean  
*ataria.info*



## Ametxe

LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.

Lorategi lanabesak.

Lora legor eta apaindura tresnak.

## SM Saldias Miguel

CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA  
N. D.G.S. J.1759

Bizi-aseguruak  
Kotxe-aseguruak  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-aseguruak  
Denda-aseguruak  
Erretiroak  
Inbertsio fondoak

# Betaurrekoak



**Irene Larraza**  
Etxepare Euskal Institutuko  
komunikazio arduraduna

«... mesedez, ez utzi ezer trenean ahaztuta». Donostiako Geltokira iritsi gara, goizero legez. Arrapaladan jaitsi gara trenetik, lanera edo ikastera korrika joateko; autobus geltoki berriko lanak direla eta gaur ere gure betiko ibilbidea pittin bat aldatu beharko dugu. Maria Kristina zubira goazenok zuzenean ezkerrean jotzeko bulkadari aurre egin beharko diogu. Ez: orain eskuin aldean dagoen zebra-bidetik pasa behar da, nahita nahi ez.

Bide berriak gehixeago ibili beharra esan nahi du, eta hori du interesgarri. Orain erabaki koxkor batzuk hartu behar ditugu, eta akaso zilegi da semaforoa gorrian dagoela ahaztea; edo errepidetik abiatzea; edo bidegorritik oinez joatea. Presaka gabiltza, badakizue.

Asteak joan asteak etorri, nor nondik joango den asmatzen saiatzen hasita nago. Hori eta jendearen bideak mentalki marrazten, Mainer Lopez artista donostiarrak Istanbulgo Arte Biurtekoan egindako lan bikainaren ildo jarraituz. Eta niretzako gordetzen ditudan arkitektura berriak zabaltzen zaizkit begien aurrean, goizero.

Orduan kalea beste era batera

eraikitzen laguntzen diguten ekimen artistikoak datozkit gogora. Herria itxuraldatzeaz gain, leku publikoa beste era batera sentitzeko eta hausnartzeko aukera ematen diguten ekintzak. Kanean ere emakumeok askatasun gutxiagorekin eta beldur gehiagorekin bizi garela azaleratzea helburu dutenak. Box.A taldeko gazteen bide anitzak. Eta, bereziki, Tolosako Alde Zaharrari taupada berri bat ekarri dion GKO Gallery-k sustatzen dituen ekimenak: hain dira xumeak itxuraz, baina edukiz handiak. «Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten». Artze, Berdura Plazan irakurria. Kaleko artea transmisioaren eta parte-hartzearen sustatzaile, berdintasunaren aldeko eszenatoki, gizarte berri-tzaile baten abiapuntu. Mundua betaurreko berriekin begiratzen irakatsiko diguten teknika eraldatzaileak.

Horrelakoetan erreparatu gabe bizi daiteke, noski. Eta pobrea. Lasai biziko al da New Yorkeko 5Pointz izeneko eraikin harrigarria, kultura garaikidearen altzorra, hura bota ez dezaten mundu mailako oihua isilarazteko goitik behera zurrizteko agindua eman duena?

«Hurrengo geltokia: Tolosa Erdia». Apeaderoaren pareko zulo handi batean ere lanak egiten ari-tu dira, eta pasabide jostalari batek dantzan ibili gaitu tarte batean. Gutxi falta zaie bukatzeko, la-saitu nau ezagun batek. Bai, laster bukatuko dituzte konponketak eta berriz ere bide guztiak espero bezala aurkituko ditugu, ai ene, zuzen-zuzen joan gaitezen.



**tolosaldeko**  
**ataria**



## Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L

**Lege Gordailua:** SS-1323-2013

**Zuzendaria:** Ainhoa Oiartzabal

**Telefonoa:** 943 655695

**Faxa:** 943 650018

**Webgunea:** www.ataria.info

**E.P:** ataria@ataria.info

**Irratia:** FM 107.6

**Papereko editorea:** Eneritz Maiz.

**Interneteko editorea:** Imanol Garcia Landa.

**Irratiko editorea:** Jon Miranda.

**Tolosaldeko**

**Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:**



BERTAKO  
HEDABIDEAK



**berria**



**Tolosaldeko gizarte eragileak**

**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**

- **Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegietia, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa, Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA  
Hezkuntza Politikako Saiburuorleku

# Beldurrari aurre egiteko bideak

Indarkeria matxistaren aurkako I. udal protokoloa aurkeztu dute

## ITZEA URKIZU TOLOSA

Indarkeria matxistaren aurkako lehen udal protokoloa osatu dute Tolosan, eta jendaurrean aurkeztu dute aste honetan. Besteak beste, askotariko indarkeria matxista jasaten duten emakumei arreta hobea eskaintzea da helburua, eta hori guztia osatzeko, arazo honen inguruko eragile guztiek bat egin dute.

Horrela, Tolosako Udala, Ertzaintza, Eusko Jaurilaritza, Osakidetza, Bilgune Feminista, Tolosaldea Garatzen, Asuncion Klinika eta Tolosako emakume erasotuak elkarlanean aritu dira. Aipatzekoa da, gainera, esparru honetan bestelako egitasmoak ere martxan jarri dituela udalak, hala nola, jabekuntza eskola abiaraztea edo Berdintasun saila indartzea; protokoloarekin loturarik estuena duena, ordea, herriko hiru ikastetxeetako arduradunekin batera osatzen ari diren hezkidetzeta plana da.

Protokoloa aurkeztu aurretik, zenbait gogoeta plazaratu nahi izan dituzte udaleko Berdintasun Saileko arduradunek: «Indarkeria matxista giza eskubideen bortxatzea da, eta egituran dago banaketa hori. Izan ere, eta Simon de Beauvoir-ek zioen moduan, sexu anatomikoaren arabera, jaiotzen garen uneaz geroztik rolak eta estereotipoak banatzen dizkigute, eta emakumea menpeko bilakatzen da».

Sexuaren araberako banaketa hori indarkeria matxistaren oinarrian dagoela diote, baina areago, prebentzio politika hauek «ikusezin-



Aste honetan aurkeztu dute, jendaurrean, protokoloa. ITZEA URKIZU

tasuna gainditzeko eta mikromatxismoari aurre egiteko ere» baliatu nahi dituzte.

Gizonen egunerokoa ia ikusezina diren ekintzek osatzen dute mikromatxismoa, eta gizona gehiago dela erakusteko burutzen dira: indar fisiko eta psikikoa erabiltzea, etxeko-lanetan ez parte hartzea, gizonak bere denbora libre beretzat bakarrik erabiltzea, emakumea emozionalki zapaltzea edo jendaurrean bikotekidea gutxiestea izan daitezke adibideetako batzuk.

### Datu kezagarriak etxe ondoan

Tolosan indarkeria matxistak «indar handia» duela diote datuek, eta ezinbestean neurriak hartzeko be-

# 50

**Eraso salatuak.** Urtebetean 50 emakume salaketak jarri dituzte indarkeria matxistagatik, Tolosan. Berdintasun saileko kideek gogora ekarri nahi dute, ordea, asko ez dira pauso hori ematera ausartzen.

harrarekin iritsi da udal protokoloa. Osasunaren Mundu Erakundearen datuen arabera, minbiziak, trafiko istripuek eta malariak batera baino emakume gehiago hiltzen ditu biolentzia matxistak, ugaltzeko sasoiaren dauden emakumei dagokionez.

Tolosara begira jarrita, larritasuna ez da txikiagoa, izan ere, urtebetean 50 emakume jarri dituzte salaketak, «eta beste asko ez dira ausartzen pauso hori ematera». Bide horretan, eta polizia-jarduna kontuan hartuz gero, Tolosako indarkeria matxista nabarmena da, eta kasuetako %76ari jarraipena egiten diote.

Azkenik, protokoloa osatu duten eragileek arreta berezia jarri nahi izan dute indarkeria matxista jasotzen duten emakumeen adinean. Arazo hau gero eta jende gazteagoaren artean gertatzen dela diote datuek, eta azken hiru urteotan salaketaren ehuneko handiena 18 eta 40 urteko emakumeek jarritakoa da.

### Neurriak hartzeko garaia

Indarkeria matxistari aurre egiteko terminologia zehaztu dute lehenik, eta, esaterako, tratu txar fisiko eta psikologikoak, sexu abusuak, sexu

erasoak nahiz sexu jazarpena bezalako kontzeptuak azaltzen ditu protokoloak.

Indarkeria matxista jasaten duten emakumeei laguntzeko, ordea, esku-hartu egin behar da, eta sarre-  
ra eta detekzio puntuak bereizi dituzte.

Sarrera puntuak indarkeria kasuak salatzeko eta laguntza eskatzeko puntuak izango dira, eta udal zerbitzuetatik hasita, foru zerbitzuetara, erkidegoko zerbitzuetara nahiz bestelako eragileengara jo dezakete emakumeek.

Detekzio puntuak, berriz, Tolosako hezkuntza zentroa, Lanbide nahiz Tolosaldea Garatzen dira, eta bertan indarkeria kasuak detektatzeko bideak dituzte.

Behin kasua ezagututa, urgentziarako kasuak eta lehentasunezkoak bereiziko dituzte, eta emakumeei laguntza juridiko, psikologiko eta ekonomikoa eskainiko diete, kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera.

Indarkeria matxistaren aurkako l. udal protokoloa osorik irakurtzeko eta zehaztasunak hobeto ezagutzeko, dokumentua eskuragarri dago [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net) atarian, Berdintasun sailean. Era berean, [www.zazpitantriangulon.net](http://www.zazpitantriangulon.net) webgunean ere Berdintasun sailetik jaitsi daiteke protokoloa.

## Telefono lagungarriak

**Indarkeria matxista dagoen kasuak salatzeko edo laguntza eskatzeko hainbat zerbitzu daude. Hona hemen telefonoak.**

**112.** Sos deiak.

**900 840 111.** Eusko Jaurlaritzako 24 orduko arreta zerbitzua.

**943 224 411.** Gizarte larrialdietarako Foru Zerbitzua.

**943 69 74 60.** Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuak.

# Komikiak, bertsoak eta umorea batera, afari-txouan

Galtzakomik komiki lehiaketako sari banaketaren harira, Ibarako Sendi Ekintzan izango da afaria

## I. URKIZU IBARRA

Datorren ostiralean, abenduaren 13an, Galtzakomik komiki lehiaketako sari banaketa izango da. Horren harira, gauean afari-txoua antolatu dute Ibaran, Sendi Ekintza elkarteak.

Umorea, bertsolaritza eta komikigintza edo irrimarrak uztartuko dituzte saioan, eta irrimarrak eta bertsoak bat-batean egingo dituzte gonbidatuek.

Batetik, Anartz Iturbe ariko da, euskarazko txisteak kontatzen; antolatzaileen esanetan, «hutsik zegoen espazio hau, eta euskarazko txisteekin betetzen ari da». Berarekin batera, Xabier Silveira bertsola-

ria ariko da afari-txouan, eta azkenik, Dani Fano eta Asisko Urmeneta komikigileak ere elkartuko dira aurreko biekin.

Fanok eta Urmenetak hasitako marrazkiari bertsoan erantzungo die Silveirak, eta alderantzizko prozesua ere egingo dute. Hau osatzeko, Iturbek txisteak botako ditu. Gaiei dagokienez, kirola, kultura, politika edo bertaratutako edonor izan daiteke jomuga.

Afari-txoura joateko txartelak 22 euroan daude, Sendi Ekintzan, Zubiaurren, Atarin, Alaien, Danon Txokoan eta Galtzaundi Euskara Elkartearen egoitzan. 21:00etan egin dute hitzordua.

## Irudia Tolosa



## Wii-a Miguel Legarrarentzat

«Gaurko eguna ospatzen hasi zenean, Euskararen Nazioarteko Eguna izendatu zuen Eusko Ikaskuntzak, Euskararen Eguna guztiak direlako»

mezua bidali zuen Miguel Legarrak, #tlseh traola erabiliz, eta bere mezua izan zen, guztietan bertxio-tuena. **ATARIA**



Joxe Mari Luengo, Zizurkilgo alkatea, ATARIA IRRATIAN. J.M.

# Herriari buelta eman nahian

Zizurkilgo alkate Joxe Mari Luengok futbol zelaia, atez atekoa edota ekonomia izan ditu hizpide

## MIKEL IRAOLA ZIZURKIL

Joxe Mari Luengo, Zizurkilgo alkatea, ATARIA IRRATITIK pasa da aste honetan herrian azken urtean izan diren gora-beherak eta berrikuntzak errepasatzeko: futbol zelai berria, Joxe Arregi plaza, obrak, atez atekoa, enpresen itxiera eta egoera ekonomikoa batik bat izan ditu hizpide.

Duela bi aste sinatu zuten udalak eta Gipuzkoako Futbol Federazioak futbol zelai berria egiteko akordioa. Fraisoro gainean egitea zen asmoa, baina lanak ordaintzeko beharrezkoa zen hiru milioiko gastuari aurre egitea ezinezkoa zela ikusita, gaur egungoa eraberritzea pentsatu zuten, «bertan ibiltzen diren haur guztiak ezin baitziren ezer gabe geratu». Modu horretan, belar artifizialeko zelai eraikiko dute datorren urtean.

Zelai berria egiteko aurrekontua, 300.000 eurokoa da, eta bigarren fase batean egingo dituzte aldagela eta argiteria berriaren obrak. Lanak maiatzean, denboraldia amaitu be-

zain laster, hastea espero dute, datorren urteko denboraldi berria haste-rako prest izan dadin.

Futbol zelaiarekin Joxe Arregi plazako berrikuntza proiektuko lanak biribilduko dituzte, izan ere, 2013a amaitzerako, itxuraldatuta izango da plaza, etxebizitzak berritu baitituzte eta parke bat egiteko aurreikuspena ere baitago. «Ikusgarriagoa eta atsegina izango da, egoteko leku on bat. Umeek eta zelaitik etortzen direnek han geratzeko aukera izango dute». Aurrera begira, gainera, plaza horretan estalpe bat jartzeko proiektua dagoela ere aurreratu du Luengok: «Aurrekontu handiagoa denez, luze joango da, baina zirriborro batzuk egin dira, eta zer nahi dugun gutxi gorabehera badakigu». Zonalde horretan bada konpondu beharreko beste arazo bat, ibaiarena, izan ere, eurite garaian futbol zelaia eta inguruak urez betetzen dira: «Badago horretarako proiektua, Asteasu eta Amasa-Villabonako Udalekin batera, baina 18 milioi euro balio ditu eta une honetan ezinezkoa zaigu gastu horri aurre egitea. Soilik Amasa-Villabonako zubiko zatia egin da».

Atez ateko bilketa sistema ere izan du hizpide Luengok. Gai «polemiko» gisa definitu du, eta EAJK hor eginda-

ko lana salatu: «Herritarrak nahastu zituzten. Atezatekoa aukeratu genuen birtziklapen tasa hoberenak ematen zituelako eta jendeak kontzientziatu behar du». Herri galdeketa sortutako polemikaren harira, atsekabetuta ageri da alkatea: «Iruzurra izan zela argi dago, eta ez errepikatzeke parte-hartzea arautu nahi dugu, seriotasun bat behar da».

Datu ekonomikoekin, berriz, pozteko eta kezkatzekeko arrazoiak ditu Luengok. Alde batetik udalaren zorra kitatzen ari dira: «Agintea hartu genuenean, hiru milioiko zorra zegoen, eta 2009tik beste zortzi zor zitzaizkion Aldundiari. 2.200.000koa da une honetan zorra. Pixkanaka ari gara gutxitzen, murrizketak eginez. Esaterako, zinegotziek 60.000 euro kobratzen zituzten bilerengatik, eta hori kendu egin genuen EAJ eta PSE-EEren desadostasunarekin».

Aldiz, herriko eta eskualdeko enpresek bizi duten egoerarekin kezkatuta da. Urte berean bi enpresa ixteko agindua eman dute Zizurkil, Perrot eta Marie Brizard: «Ahal genuen laguntza osoa eman diegu. Tolosaldea Garatzenekin, aldundiarekin eta jaurlaritzarekin hitz egiten ari gara irtenbideak bilatzen hasteko. Aldatu behar du honek», amaitu du.

## Jesus Muñecas ezingo da Espainiatik atera

ERREDAKZIOA TOLOSA

Jesus Muñecas Aguilar Tolosako Guardia Zibilaren kuarteleko buru ohia eta Juan Antonio Gonzalez Pacheco 'Billy el Niño' polizia ohiari pasaportearen kendo die Pablo Ruz epaileak, Maria Servini Argentinako epailearen estradizio eskaeraren harira. Behin-behineko askatasunean gelditu dira, baina ezingo dute Espainiatik atera, non bizi diren adierazi eta telefonoa eman beharko dute, eta astero joan beharko dute auzitegira deklaratzera. Baldintza horietako bat urratuz gero, espetxeratu egingo dituzte. Epaileak galdetu die ea estraditazioa onartzen duten. Ezetz erantzun dutenez, estradizio eskaera Auzitegi Nazionaleko Zigor Salak erabaki beharko du. Ez du eperik horretarako. Baiezko batek ez luke, ezinbestean, estradizioa ekarriko.

## Hainbat batzordeen bilerak, asteartean

AMEZKETA. Abenduaren 10ean, hirigintza, kultura eta ingurumen batzordeen bilera egingo dute pleno aretoan 19:00etan. Zazpi puntu izango ditu bilerak.

## Zirkurako sarrerak, Tolosa&Co-ren eskutik

TOLOSA. El Gran Circo Italiano Bravo Bravisimo Tolosan da, San Esteban auzoan jarri du karpa eta asteburuko emanaldietarako 100 sarrera banatuko ditu udalak dohain. Horretarako Tolosa & Co elkartearekin adostu du banaketa nola egin eta beraiek arduratuko dira zabal-tzeaz.

## 'Itsasoaren emazteak' DVD eta CDa aurkeztu du Oinkarik



ERREDAKZIOA AMASA-VILLABONA

Oinkari Dantza Taldeak, *Itsasoaren Emazteak* izeneko ikuskizunaren disko eta DVDa argitaratu du. Lehenengoan Pello Ramirez musikariak emanaldirako espresuki egindako abestiak izango dira entzungai. Bigarrean, aldiz, uztailen Tolosako Leidor aretoan Oinkari dantza taldeak eta HIKA Teatroak estreinatu zu-

ten emanaldia oso-osorik ikusteko aukera izango da.

Ikuskizun honek, euskal dantza tradizionala oinarri hartuta, Euskal Herriko kostaldeko arrantzaleen emazteen bizipenak kontatzen ditu. Berrogeita hamar dantzari, lau musikari eta bi aktore bildu dira taula gainean olatuaren joan etorrian, josi eta josi sareetan barrena historia bizi eta hunkigarria harilkatuz.

## Irudia Amezketa



## Arte modernoko erakusketa

Amezketako Zumadi ikastetxeko haur hezkuntzako bi, hiru eta lau urteko ikasleek arte modernoko erakusketa bat egin dute eskolako

frontoian. Artista batzuen lana aztertuko dute eta estilo horietan oinarritutako artelanak egin dituzte ikasleek. **ATARIA**

# Herritarrei «esfortzu txiki bat» eskatu die **Gorka Egia** alkateak

Agenda 21 osatzeko parte hartze prozesua azken fasean sartu da; galdetegia banatu dute

**ASIER IMAZ ORENDAIN**

Azken fasean sartu da Orendaingo parte hartze prozesua. Bizilagunen artean etorkizuneko herria eraikitzen ari dira, eta horretarako, orendaindarrei etxeko lanak jarri dizkie udalak: galdetegi bat bete behar dute. Udala, ordea, ez da galdetegiaren sortzailea; koordinazio eta banaketa lanez arduratu den eragilea besterik ez da. 54 herritarrek osatu zuten etxeetan banatu berri duten galdetegiaren bizkarrezurra, 60 proposamen ingururekin. Orain, hauen lanari erantzuteko garaia iritsi zaie beste bizilagun guztiei. Helburua, Agenda 21 osatzea da; etorkizuneko Orendain osatzea da.

Gorka Egia gustura agertu da parte hartze prozesuak orain arte izandako emaitzarekin. Orendaingo alkateak ATARIA IRRATIAN «arrota-sun» horren zergatia azaldu zuen: «Lantaldeetan biztanleriaren %38 aritu da lanean. Parte hartze horri esker herriko gazte bati lana eman diogu. Lehenengo fasea, beraz, arrakastatsua izan da». Orain bigarren fasean daude, eta hor ere, herritarren beharra dutela dio Egiak: «Orendaindarrei esfortzu txiki bat eskatzen diegu, eta galdetegia betetzera gonbidatzen ditugu. Urtearen hasieran martxan jarri genuen prozesuak arrakasta izateko, ezinbestekoa da bizilagunen ekarpena».

Aste honetan banatu dute galdetegia etxez etxe, eta bertan, herriaren inguruko proiektu eta proposa-



Gorka Egia TOLOSALDEKO ATARIA-ren egoitzan. MIKEL IRAOLA

menak daude. «Orendaindarrek euren herrian zer egitea nahi duten erabaki behar dute, eta horrez gain, lehenetsunak zein diren azaldu. Ondoren, udalak datu horiekin ibilbide horri bat egingo du, hau da, Agenda 21», dio alkateak. Udalarentzat tresna oso baliagarria dela dio Gorka Egia, izan ere, aurrerantzeko urratsak emaitza horien gainekoak izango dira Orendainen.

Agenda 21 eraberritzearen beharra 2012. urtearen amaieran argi ikusi zuen Orendaingo Udalak, aurreko planean agertzen ziren ia ekintza guztiak eginak baitzeuden. Zer egin ez zekitela gelditu aurretik, plagintza berri bat osatzen hasi ziren berandu baino lehen. Horretarako, Egjaren esanetan, argi zuten baldintza nagusia zein izango zen: herritarren parte hartzea. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, Aztiker enpresarekin jarri ziren harremanetan. Aztikerrek diseinatu zuen Orendaingo parte hartze prozesua, fase desberdinak zehaztuz. Apirile-

an hasi ziren bulegoetako teoria guztia kalera ateratzen, herri guztian zehar komunikazio kanpaina bat eginaz. Maiatzean lantaldeak osatzen hasi ziren, eta hauen lehen batzarra ekainaren bueltan iritsi zen. Herritarrek osatutako lantaldeak hiru saio egin ditu: Orendaingo indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko; formaziorako eta proposamenak egiteko. Jasangarritasunaren eta parte hartzearen arloan egindako proposamen guztiak galdetegitik pasa gabe zuzenean Agenda 21en txertatu dituzte, oinarritzko eskariak direla kontuan hartuta. Beste proposamen guztiak, galbaea pasa ondoren, etxeetan banatu den zerrendan daude. Eta orain, horien artean aukera egiteko garaia iritsi zaie orendaindarrei.

Guzti hau dena zergatik eta zertarako izaten ari den argi azaltzen du Gorka Egia Orendaingo alkateak: «Udalarentzat dokumentu garrantzitsuenetakoa den dokumentua osatzeko».



## Kirol taula

### LABRIT, IRUÑEA

#### PILOTA

##### Abenduak 7, bihar

**18:00.** Ekaitz Saralegi eta Oinatz Bengoetxearen arteko partida. Lau t'erdiko txapelketaren 3. eta 4. postuak erabakitzeko.

### USABAL, TOLOSA

#### ARETO FUTBOLA

##### Abenduak 7, bihar

**16:00.** Laskorain-Sasiko.

#### ESKUBALOIA

##### Abenduak 7, bihar

**18:00.** Tolosa-Corrales Buelna.

#### FUTBOLA

##### Abenduak 7, bihar

**10:00.** Tolosa CF-Beasain, infantil txikiak.

**11:45.** Tolosa CF-Lazkao infantilen ohorezko maila.

### BERAZUBI, TOLOSA

#### FUTBOLA

##### Abenduak 6, gaur

**16:30.** Tolosa CF-Lengokoak, jubenil ohorezko maila.

### BEOTIBAR, TOLOSA

#### ESKU PILOTA

##### Abenduak 6, gaur

**17:00.** Mikel Goñi-Otxandorena eta Artola-Tolosaren arteko partida.

##### Abenduak 7, bihar

**18:00.** Diario Vasco txapelketa.

#### ZESTA PUNTA

##### Abenduak 8, etzi

**17:00.** Zesta puntan profesional mailako partida: Egiguren II-Suso Olharan-Ibai Erkiagaren aurka. Aurretik, Iñigo-Telleria tolosar gazteek jokatu dute, Moresmau-Del Rio-ren aurka.

### BERROBI

#### FRONTENIS TXAPELKETAKO FINALAK

##### Abenduak 7, bihar, 16:00etan

**Binaka:** Niko Artola-Hodei Arregi eta Xabi Romero-Edu Lobato.

**Mistoa:** Arantzasu Rodas-Hodei Arregi eta Mireia Lezea-Aitor Oinerrera.

**Binaka:** Arantzasu Rodas-Mireia Lezea eta Leire Jauregi-Oihane Bergara.

**Buruz burukoa:** Hodei Arregi eta Xabi Zubiriaren artean.

### INTXAUR, ZIZURKIL

#### PILOTA

##### Abenduak 6, gaur

**11:30.** Gipuzkoako txapelketako hiru partida, alebin eta infantile-nak.

##### Abenduak 8, etzi

**09:45.** Zizurkilgo III. Pilota Txapelketa. Final aurrekoak. Bost partida. Benjaminetan, Arrillaga-Beloki Andueza-Espositoren aurka, eta Sasiain-Eizagirre Arrizabalaga-Arzallusen aurka. Alebinetan, Elosegl-Alberdi, Perurena-Ugartemendiaren aurka. Infantiletan, Sein-Azpiroz, Aizkorbe-Apezetxearen aurka. Kadeteetan, Salaberria-Aurkeoetxea, Mattin-Oiarbideren aurka.

### ALTZO MUINO, ALTZO

#### PILOTA

##### Abenduak 7, bihar

**16:00.** Gipuzkoako txapelketan, alebinetan, Intxurre eta Tolosa.

### BEHAR ZANA, VILLABONA

#### PILOTA

##### Abenduak 7, bihar

**17:00.** Behar Zana eta Hernani, nagusiak, eskuz binaka.

## Unai Otaño eta Jon Irazu Nazabali aurre egin nahian

Maila nagusiko Euskal Herriko Aizkolari Txapelketaren finala jokatu da etzi, 12:00etan, Elgoibarren

### ASIER IMAZ

Euskal Herriko Aizkolari Txapelketa Nagusia jokatu da abenduaren 8an, etzi, Elgoibarren. 12:00etan hasiko dira lanean aizkolariak, eta bertan, eskualdeko bi ordezkari egongo dira: Unai Otaño ibartarra eta Jon Irazu zizurkildarra. Hauekin batera, Iñaki Azurmendi, Aitzol Atutxa eta Joxemari Olasagasti ariko dira lehian. Guztiek, txapelaren lehian, aurkari bakarra izango dute: Floren Nazabal faborito handia. Finallean egin beharreko lana ondorengo izango da: 54 ontzako, 60 ontzako eta 72 ontzako launa enbor moztea. Finalerdietan denborarik onena Nazabalek lortu zuen, eta bigarren, ezustekoa emanaz, Unai Otaño gelditu zen. Jon Irazu finaletik kanpo gelditu zen, baina Jon Rekondoren lesioa medio, zizurkildarrak txapelaren lehian aritzeko aukera izango du etzi.

### Shanti Trofeoan, izen ematea

Tolosan, Eguberrietako XXXII. Shanti Trofeoa jokatu da alebinetan eta benjaimetan. 2002tik 2005era jaiotako haurrak ibiliko dira areto futboleant, eta izena eman nahi duten taldeek abenduaren 10era bitarte zabalik dute epea. Lehian atara nahi duten neska-mutiek euren taldearen izena emateko Tolosako Shanti Kirolak dendara joan behar dute.

## FELIX AIESTARAN AMEZKETA

**F**utbolean egiten den modura bertsogintzan ere, *Champions* lehiaketan aldarria egiten den garaiotan, Amezketa bertsolari finak, bertsolaritzaren oinarriak eriten ditu Tolosa eta inguruko gazte-txoengan, prestutasun osoaz, «Ahozotasuna eta Bertsolaritza» egitasmoaren barruan.

Ikasturte amaieran kaleratzen den «Bertsometa» liburuan bailarako 2.000 ume baino gehiagok, gelakideekin batera, argazkia gogoan izango dute. Argazkiaren atzean xamurtasunez egindako eguneroko lan isila dago.

Bixente Gorostidi Bertsozale Elkarte kide modura lanean arituko da BEC-eko Txapelketa Nagusiko finalean.

### Zer da «Ahozotasuna eta Bertsolaritza» egitasmoa?

Bertsozale Elkartearen proiektutik abiatu zen. Eskolan ahaztasuna lantzeko bitarteko oso ontzat hartu zen bertsolaritza. Bertsolaritzak tresna bikainak ditu ahaztasuna lantzeko. Arrasateko ikastetxe batean egin zituen lehen urratsak; ondoren Azpeitiara zabaldu zen eta gerora, duela hamar urte Tolosan hasi ginen.

### Zenbateko zabalkundea du egitasmoak?

Euskal Herri osora zabaldua dago. Gipuzkoan bi astez behin lantzen da LH5 eta 6an. Bizkaian astero aritzen dira, baina bertan ikasturte barikartean parte hartzen dute. Tolosako hiru ikastetxeak, Ibarra, Berrobi, Berastegi, Lizartza, Altzo, Alegia, Amezketa, Asteasu, Aduna, Zizurkil



## Bixente Gorostidi

# Bertso kimuak landuz

«Ahozotasuna eta Bertsolaritza» egitasmoan dihardu Tolosaldeko 2.000 ikasle baino gehiagorekin

eta Villabonako ikastetxeetako 2.000 ikasle baino gehiagok parte hartzen dute gure eskualdean.

### Nola egiten da gela barruan egitasmoaren lanketa?

Hiru ikasturterako materiala dago

bertsolaritzaren oinarriak lantzeko: bertso mamia, doinuak, dakitenetik abiatuta sortzeko teknika eta doinu berriak lantzen dira. Ikasleek egitasmoari egin dioten harrera onarekin harriritu gaude. Bertsoak



badu zer bait magikoa. Ikasle gehientsuenek neurria eta hasierako sei edo zazpi doinu badakizkitez, bertsoak sortzeko gai direla jabetzean, ikaragarritzko gogoaz aritzen dira. LH 4tik 6ra aritzen diren ikastetxeetan %80tik gora zortziko handiko bertsoa sortzeko gai da, eta hori asko da. Ikasle trebatu eta zaletuenak, Bertso Eskoletara bideratzea da egitasmoaren helburua, baina ez dugu asmatu horretan.

#### **Txikienek ezagutzen al dute bertso-gintzaren tradizioa?**

Bertsolari zaharrak marrazki bizidunetatik ezagutzen dituzte: Lazkao-Txiki, Txirrita, Pernando Ametzetarra... Bilintx ezagutzen dute kanta dela eta. Maialen Lujanbio

edo Andoni Egaña baino ezagunagoak zaizkie bertsolari tradizionalak. Inguruak laguntzen ez duenez, gaur egungo bertsolaritzaren jarraipenik ez dute egiten. Herri txikietan gaurko bertsolariak ere ezagunak dira, baina ez horrenbeste Tolosa edo Ibarra modukoetan.

#### **Bertsogintza tradizionala ezagutzeak laguntzen al du bertso sormenean?**

Hurrek izugarritzko irudimena izaten dute, baina hasieran korapilatu-ta egoten dira, errimatu eta neurtuta esatea kosta egiten zaielako. Horretan, aurretik doinu desberdinak ezagutzeak asko laguntzen du.

#### **Ikasle askok ez al dute bertsolaritza urrutitik bizi?**

Ikasle asko ez dira sekula ere bertso saio batean egon. Bestetik, ez dute irrati edo telebistatik jarraipenik egiten.

#### **Ikasleekin Leidorren egiten den saioak zein helburu du?**

Ikasturte amaierako saio horren helburua gelan landutakoa erakustea izaten da. Herrien arabera modu desberdinean egiten da: Tolosan asko dira eta Leidorren egiten da saioa, herri txikietan aldiz, ikastetxeko jaialdian txertatzen da saioa. Leidorreko saioan talde askok hartzen dute parte eta askotan, umeak bertsozale bihurtu ordez, kontrakoa gertatzen ez ote denaren kezka sortzen zait, saioa luzatu eta gaiak eta doinuen aukeraketa ikasleek esku uztean, errepikatu egiten baitira.

#### **Nola landu behar da gazteen bertso harrobia?**

«Ahozkotasuna eta Bertsolaritza» saioen bidez ikasle guztiak bertsolaritzaren berri izatea bermatzen da, bertsoa zer den, nola osatzen den eta probatzeko aukera izanik, gustatzen zaien eta trebatuak diren edo ez jakinik, pausu naturala Bertso Eskola eskura izatea da. DBHko lehen bi urteak klabeak dira, zaletasunari eutsiz gero, helduen bertso eskolara joateko aukera handia izaten da. Bertso Eskolarik ez izatean eten egiten da eta jarrera aldaketa izaten da: lagunaren artean ez da horren polita bertsotan aritzen dela esatea, besteak beste, futbolarekin alderatuz... Bertsolaritzak ez du beste eskolaz kanpoko jarduerak heineko prestigiorik. Eskolaz kanpoko eskaintzen artean azkena izaten da bertso eskolarena herri handietan.

### Zerk erakar dezake gaztea gaur egungo bertsolaritzara?

Eliminazio sistema dela eta, txapelketak duen lehia kutsuak gazte asko erakarri du. Zein sailkatu den morbo berezia izaten da txapelketa saioetan. Bada oso bertsozalea ez den jendea, txapelketa osoa jarraitzen duena. Bertso Eskoletan aritzen diren gazteentzat bertso eskolen arteko topaketak erakargarriak izaten dira. Oso plaza mugatukoak izan arren, Udalekuetan aritzen direnak, gero bertsoan jarraitzen dute.



**Gaur egun eliteko bertsolaria izatea inoiz baino zailagoa da»**

### Bertsolariak edo bertsozaleak sortu behar dira?

«Ahozkotasuna eta Bertsolaritza» egitasmoan hasieratik oso argi izan dugu bertsozaleak sortu behar direla. Bertsolaritzaren berri emanaz zabalkunde lan handia egin da. Bertsoa euskara lantzeko tresna oso egokia dela erakutsi dugu.

### Zein egoeratan daude Tolosaldeko gazte eta helduen Bertso Eskolak?

Denetik dago. Tolosan beti nahi izan da Bertso Eskola izatea, batez ere inguruko herrietakoak bildu izan ohi dira, zikloka agertu eta desagertu egiten da hainbat arrazoi-erengatik. Azken lau urteotan 16-30 urte bitarteko hogeiren bat lagun biltzen dira, batzuk bat-bateko taldean eta besteak paperezko lanetan ari direnekin. Alegiako eskolan bi talde indartsu daude: LHn hamaseiren bat lagun eta DBHn 42 lagun ari dira. Alegiako «Zazpi Astoren Gainean» helduen bertso taldea astero biltzen zen eta berriro hasi nahian ari da. Amezketan 6-8 heldu elkartzen gara; eskolan ere sortu



nahi dugu. Berastegin gaztetxoena abian jartzen dugunean, helduenari berriro ekin nahi diogu. Ibarran helduen taldea Amaia Agirrerekin aritu zen eta Villabonan oraintxe ez dago talderik. Bertan gaztetxoentzako taldea egin nahi da urtero Asteasun egiten den modura. Bidagoianen «Ahozkotatua eta Bertsozale» egitasmoan iaz sartu ziren eta Al-bizturerekin batera bertso eskola osatu nahi dute.

“ **Pilarika bezperako saio modukoak Euskal Herrian oso gutxi egiten ziren»**

**Jarraipena ematea falta da, ezta?**

Gabezia horiei erantzuteko «Harituz» bertsozale taldea sortu da Tolosan. Herri bakoitzak irakasle falta edo finantziario falta dela eta, izan ditzakeen arazoei erantzuteko, eskualdeko ikuspegi osatu batez lan egiteko asmoa du.

**Zer esango zenioke gazte bati bertsozale izateari buruz?**

Puntako bertsozale izatea oso zaila da. Bertsoak tradizioaren berri

eman, hizkuntza aberastu, jende aurrean aritzeko ohitura landu eta pertsona modura asko jantzen gara, edozein gaiari buruz, bertsozale aritzea egokitzen baita. Bestetik, ikuspegi desberdinak entzuten ikasi eta erantzun egokia ematen ere ikasten da.

**Mintzola Amasa-Villabonan eta Bertsozale Elkarteak Tolosan egoteak, bailarako bertsozaleentzako indarra adierazten al du?**

Tolosaldeak beti izan du bertsozaleentzako indar handia. Tolosan egiten ziren *Pilarika bezperako* saio modukoak Euskal Herrian oso gutxi egiten ziren. Txapelketetako giroa izaten zen Beotibarren bertso gogoz zegoen jendez gainezka egoten zenean. Tamalez galdu egin zen. Udalen aldetik laguntzeko jarrera agertu izan da.

**Plazetan ari al zara?**

Azken aldi honetan gutxiago. Gipuzkoako azken txapelketan ez nuen parte hartu eta horrek beti mugatzen zaitu. Txapelketan egiten ez duen bertsozaleentzako saio gutxiago izaten du.

**Nondik nora doa bertsozaleentzako indarra?**

Txapelketa inguruan saioek izugarriko arrakasta izaten dute. Ohiko



**ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA**



Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak  
Iurre, 4 (Mustod)  
943 672 300  
Amaroz, 21.  
943 675 513  
20400 TOLOSA

**Zumardi**

SEGUROA BILBAO



Aholkularitza integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

Errotulazioa & inudria

**Vicente**

www.rotulosvicente.com

943 69 02 94  
taller@rotulosvicente.com  
Laskibet balara 25, 1-04 atea  
20271 Irua (Gipuzkoa)

**J. San Sebastian**  
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

**Martin Eceizabarrena**



Instalazio erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822



saioen arrakasta jaitzi izan da, baina txapelketak bezalaxe, bertso afariek ere goiari eusten diote. Gaur egun, formatu berriak probatzen dira: bertso musikatuak eta abar.

#### **Plaza, areto, afari, omenaldiak... nondik jo behar du bertsolaritzak?**

Bertsoak denean agertu behar du, baina berezko tokia bertso afarian izango du. Amurizak esaten zigunez, bertsotan aritzeko ez da saio bateko deiaren zain egon behar, gogoia denean bertsotan egin behar da. Garai batean tabernetan bertsotan aritzea normala zen, baina gaur egun ia denean musika dago... Bertsoak festa giroan beti du lekua.

#### **Bertsolariak zein lanketa egin behar du?**

Doinuak eta errimak lotzeaz gain, bere burua asko jantzi behar du, edo-

zein gaiak bere iritzia izan behar duelako. Beti zaila izan da, baina gaur egun eliteko bertsolaria izatea inoiz baino zailagoa da. Txapelketa garaian toki guztietatik ideiak hartzen ari direnez, bere burua irakiten bezala izaten dute.

#### **Bertso txapelketa bertsoaren Champions-a al da?**

Neurri batean bai. Eliteko bertsolariek halaxe hartzen dute. Gipuzkoako Txapelketa Liga izango da eta Txapelketa Nagusia *Champions*-a. Euskal Herrikora zuzenean sailkatuta daudenek ez dute Gipuzkoako Txapelketa parte hartzen. Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio edo Jon Maia, txapelketa nagusira zuzenean doaz, bi lehenbizikoen zer den Gipuzkoakoa irabaztea badakiten arren.

#### **Zer ematen dio txapelketak bertsolaritzari?**

Astinaldia ematen du txapelketak. Bertsoaren inguru osoak bizitu egiten du, mugimendu handia sortzen da hilabete batzuetan, lau urteko atsedendaldi luzearen ondoren. Finalerako giroa izugarria izaten da.

#### **Euskal Herriko Bertso Txapelketak bertsolaritzaren esparrutik gaindi ez al da euskalduntasun osoaren indar erakustaldia?**

Bai, halaxe da. BEC-eko giroa izugarria da eta bertarako sarrerak hilabete lehenago saldu dira, finalean zein izango diren jakin gabe... Historikoki Iparralde eta Hegoalde elkartzen duen ekitaldia izan da. Kanporaketak bi aldeetan egiten dira eta bertsolariak ere bitakoak dira. Donostiako finaletara ere lpa-



“ **Bertsoa euskara lantzeko tresna oso egokia da»**

rraldeko jende asko etortzen zen. Gaur egun ere bada, baina batez ere 90. hamarkada inguruan bihurtu zen Bertso Txapelketa euskaldun guztion festa zen. Finalean, jendea bertsolari jakin batzuk entzutera baino euskaldunon festa batera joaten da.

**Aurtengoan Oion eta Maulera iritsi da...**

Bertsozale Elkartek arazoak dituzten eskualdeei egiten dien keinuak

“ **Bertsolaritzak ez du beste eskolaz kanpoko jarduerak heineko prestigiorik»**

dira. Txapelketako saioa jartzen den lekuan jartzen dela ere, sarrera guztiak saltzen direnez, hango euskaldunei egiten zaien babes keinua da.

**Nola bizi duzu txapelketa?**

Arazo mordoa dudanez ez dut gehiegi jarraitu oraindano, baina azken saioak telebistaz jarraitu ditut eta beste batzuetara bertaratu naiz. Alde batetik bertsolarietako oholtzan zenbat sufritzen duten ikusteko eta bestetik, inbidia sentitzeko, bertso onak izaten direnean, jendearen erantzuna ikusterakoan...

**Zein egitasmo duzu esku artean?**

«Ahozkotasan eta Bertsolaritzan» egitasmoan ahal dudana gehiena ematea, eta «Harituz» elkartearen lanarekin ilusionatuta nago, bertsolaritzari Tolosaldean bultzada handia eman diezaiokelako. Hezkuntza arautuan, «Ahozkotasa eta Bertsolaritza» egitasmoan falta diren Anoeta moduko herriak sartzeko lan egingo dugu. Gazte eta helduen bertso eskolak zabaltzen saiatuko gara.



Bixente Gorostidi «Ahozkotasan eta Bertsolaritza» saio batean

# Tolosako neskatxak: Emakumearen historia laburra

Bigarren Gerra Karlista eszenatoki hartuta emakumea publikoki iraindua, biktima errudun bihurtuz, garaiko agiri eta testigatza kulturelek jasota

Asier Artola  
EHUko Historia-Ikerlaria


«Tolosako neskatxak  
bostetatikan bi  
aurten gelditu dira  
guztiz errukarri  
bihotzetikan triste  
animatik larri  
alargundu dirala  
esanaz alkarri  
hamaika malko eder  
zaiote erori».



Arropa garbiketa Zerkausiaren parean

**B**igarren Gerra Karlistaren baitan (1872-1876) idatzi zen *Tolosako neskatxak* bertso sortako pasarte bat dugu aurrekoa. Irudia gogorra da. Poema epiko-tragiko baten ataria izan liteke. Joseba Tapiak *Eta tira eta tunba* diskoan hitz hauek janzteko erabilitako melodiak gehiago du *requiem*etik satirarako kantutik baino, baina konposatu zen garaian azken hau zuen helburu, eta horixe da hain justu egungo irakurleari ezinegona eragiten diona.

Bertso paper honetako istorioa honela labur daiteke: 1873ko irailetik karlistek inguraturik egon eta 1874ko otsailean bando honen esku geratu zen Tolosa gerraren azken hilabeteetan liberatu zuten (beti ere euren kontakizunaren arabera) tropa liberalek; bertsolariak



eszena orgiastiko bat konposatzen du, Tolosako neskatxak ageri dira bertan, «gonak beren tokira/ inola ezin altxa»; garaipenaren alderetatik euren gorputzak eskaintzen dizkiete liberatzaileei, baina egunak pasa eta *Cantabria* batailoieko soldaduek Iruñera egin behar dute «neskatxari utzirik/ kaiolan zozuak»; emakumeak, haurdun eta biziaren alargun, gudariek, hiri berriaren, amorante berriekin, eszena bera errepikatzen duten bitartean.

Antzerako bertso paperak zabaldu ziren Euskal Herrian, Tolosa beste hiri batzuentatik ordezkatuz. Ezin jakin deskribapen hauetara hurbil litekeen gertakariarik jaso zen edo ez. Bertan ageri diren baloreak interesatzen zaizkigu ordea. Ospakizun bat baino gehiago bortxake-





Lumaztaketa, emakumearen umiliazio publikoa

ria kolektibo dirudien honetan autoreak argi du erreduntasunak nola banatu. Errua, nola ez, neskatxena da. «Ederki egin dizute/ zertan hoi eman». Errua bakarrik ez, merezi ere badute. Antzekoa bota zion Txirritak ezkondu gabe haurdun gelditu eta Jaungoikoaren zigorra gaixotasun larri moduan jaso zuen emakumeari: «Hobe zenduen zere loria/ ondo guardatu bazendu». Eta hone-la, bortxakerien azalpen matxistaren baitan, biktima bilakatzen da biktinario, kaltetua errudun.

Europa hegoalde osora (eta harago) zabaltzen den balore-sistema hau bikain azaldu zuen Pitt-Riversen, herrixka andaluziar bati eskaini zion lan etnografikoan: gizonak, bere ekintzekin, ohorea irabazteko gaitasuna duen bitartean, emakumeak ohore hori bera galtzeko gaitasuna besterik ez du. Bere eginkizuna da bere lotsa babestea, eta sexuen arteko lan banaketaren arabera, familiarena zaintzea ere bera-ri dagokio. Bere egitekoen artean daude egutegi erlijiosoak betearaztea, etxearen irudia mantentzea. Bere ardurako dira etxekoen itxura

fisiko eta espiritualak. Gizonari dagokio «kanpoaldea», alor publikoa; emakumea barnetasuna da, espiritualtasuna, irudi garbiaren zaintza; emakumea etxea da, alor pribatua, bigarren planoan. Garai haietako ezkontzetan, oihal bat zabaltzen zen bi ezkontideen artean: mutur bat gizonaren bizkarrean ipintzen zen, bestea emakumearen buruan. «Uztarria» zuen izena oihal hark. Emakumea uztarripean. Uztarritik ihes egiten zuenak etiketa jakina: sorgina edo emagaldia.

Emakumeei emandako jipoiak ugari dira bertso paper umoristikoetan. Beti ere «merezitakoak», noski. Eskualdeko bertsolarien artean, baserritarrak izan edo kaletarrak izan, adibide ugari topatzen dira. Andre mozkorrak, gizona ongi zaintzen ez dutenak, etxea ongi gobernatzen ez dutenak dira bertso hauetan biktima. Gai hauek umore-rako erabili izanak eragiten du kitzika. Jipoiak normaltasunez hartzen dira. Jipoiak ulergarriak dira. Jipoiak ez ziren kritikatzeko, «gehiegizko jipoi» kontsideratzen ziren haiek baizik. Baserri giroan senar jipoi-

*Xirimiri*  
Txokolategia  
Gosariak eta meriendak  
Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

**HALCON**  
BIDAIAK

*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA  
Tel.: 943 674 566  
Faxa: 943 674 113

**Saldias Miguel**


**CORREDURIA DE SEGUROS ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**  
N. D.G.S. J.1759

- Bizi-asegurua
- Kobe-asegurua
- Istripuak
- Gaitasunak
- Ospitalizazioak
- Subsidioak
- Ian-istripuak
- Enpresa txiki eta ertainak
- Erantzukizun zibila
- Etxe-asegurua
- Denda-asegurua
- Erretiroak
- Inbertsio fondoko

SALDIAS MIGUEL, Alalorua Euzkoak, 12 bisita  
Tel. 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
[www.saldias-miguel.com](http://www.saldias-miguel.com)



Goiko bi argazkietan emakumeak lanean ageri dira Boinas Elosegui enpresan Behean, ezkontza eta arreoaren lehen irudian; eta hirugarrengoa, emakumeen boto eskubidea II. Errepublikan



tzaileei trufa egiteko mekanismoak baziren, honen etxe inguruan koardilari zintzarriak jotzea kasu. Baina hala ere trufarik elaboratuenak senarra jotzen zuten emakumeei zuzentzen zitzaizkien. Herriko plazan bizilagun guztiak bildurik, eta trufatuak izango zirenak nortzuk ziren zabaldua, bi mutilek, andre-gizonenez mozarroturik, jipoiaren eszena irudikatzen zuten, edota asto karrerak egiten ziren. Berrito ere «mari mutila» senar jipoitzailea baino irainduagoa. Iturrietan ez da «euskal matriarkaturik» topatzen.

Emakumea uztarritik askatzen saiatu zenean amaitu ziren umore-rako gogoak. Tolosaldeko emakumearen historiara hurbildu nahi duenak 1936ko gerra zibilaren baitan emakume tolosarren aurka egin ziren gerra kontseiluetan aur-



kituko ditu emantzipazio femeninoren aurkako gorrotoaren adierazpenik garbienak. Tolosako kartzelan zegoen testigu amorratu batek bera zaintzen zuen emakume miliariari jaurtitzen dizkion hitzei bitsa darie. Hankaz gora zegoen mundua. Behin eta berriro irudi bat errepikatzen du: galtzak jantzita zebilen emakume soldadua. Galtza haiek begietan min egiten zioten. Noski, nahiago zituen gonak erraz jaisten omen zituzten emakume haiek. Uztarripean; euren lekuan. Honela uler liteke emakume errepublikarrek gerraostean jasan zuten errepresio partikularra. Ilea sustraietaraino ebaki zitzairen emakumeen kasu ugari bildu da eskualdean, emakumetasunaren sinbolotzat zuten hura erauzita. Zorionez gauza ugari aldatu dira ordutik; tamalez beste asko ez.

		6	7		1			
		4					2	7
		1		2	9			3
9	6	3			5			
		8				3		
			3			6	7	9
6			5	4		9		
3	4					7		
			9		6	8		

4		3	8			1		
5	2							8
				3	6			
2				5	8			7
	5						1	
3			9	1				4
			7	9				
6							2	9
		8			3	4		1

## Farmaziak



### Abenduak 6, ostirala

#### Ibarra

Egunekoa eta gauekoa:  
Iturrioz, I.  
Euskal Herria, 3.  
Telefonoa: 943 67 09 15

### Abenduak 7, larunbata

#### Tolosa

Egunekoa eta gauekoa:  
Santamaria, I.  
Nafarroa hiribidea, 2.  
Telefonoa: 943 65 46 10.

### Abenduak 8, igandea

#### Tolosa

Egunekoa eta gauekoa:  
Morant, R. Zabalarreta, 1.  
Telefonoa: 943 67 38 49.

### Abenduak 9, astelehena

#### Tolosa

Egunekoa eta gauekoa:  
Bengoetxea, E.  
Kale Nagusia, 7.  
Telefonoa: 943 67 06 48.



## Iragarki laburrak

### LAN BILA

**Etxeko lanetarako:** etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia handiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. 943 696882 / 606 521992

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu  
ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95

## TXULETAREN FESTA

**Abenduak 6, ostirala.** Txuleta-  
ren festaren hasiera ekitaldia, Zer-  
kausia (11:00). Aeromodelismo  
erakustaldia Berazubiko estadioan  
(11:30-13:30). Idi demak izango  
dira Euskal Herria plazan. Alejan-  
dro Goya, Juanito Labaka eta Iñigo  
Lukeren idi pareak ibiliko dira  
lehian (12:00). Bazkaria Zerkaus-  
ian. Joxean Goya txuletak, Gorro-  
txategi konfitegiaren postre berezia  
eta Eguzkitza sagardotegiko sagardoa  
izango dira dastagai (14:00). Beotibar pi-  
lotalekuan pilota partidak izango dira.  
Peña-Urdanpilleta Egiguren-Aburuzaren  
aurka ariko dira lehenik, eta jarraian lau  
t'erdiko partida izango da Dario eta Altuna-  
ren artean. Azkenik, Mikel Goñi-Otxandore-  
na eskualdeko Artola-Tolosa gazteen aurka  
ariko dira norgehiagokan (17:00). Tolosa&Co merkatari  
elkartek antolatuta, *Una noche sin Sabina* kontzertua  
Trianguloa plazan (19:00). Afaría Zerkausian. Alejandro  
Goyaren txuletak, Begiristain sagardotegiko sagardoa  
eta Gorosti etxearen postre berezia izango dira dastagai  
(21:00). Tolosa&Co-ren eskutik, txu-txu tren turistikoa  
herrian barrena ibiliko da, eta Tolosako hainbat denda  
zabalik izango dira (goizez eta arratsaldean).

**Abenduak 7, larunbata.** Larunbata izanda, asteroko  
azoka egingo dute Trianguloa plazan eta San Frantzisko  
pasealekuan (08:00). Euskal Herria plazan ganadu azo-  
ka izango da (10:00). Txekor erreka jateko aukera izango  
da, eta baita Tolosa Gourmet-eko kide diren sagardogi-  
leen sagardoa dastatzeko aukera ere (12:30). Bazkaria  
Zerkausian, Alejandro Goyaren txuletak, Aburuzako sa-  
gardoa eta Saizar etxearen postre berezia izango dira  
dastagai (14:00). Diario Vasco pilota txapelketako fina-  
lerdiak Beotibar pilotalekuan (18:00). Afaría Zerkaus-  
ian. Basatxerriren urdaiazpikoa, Gipuzkoako Frisoi El-  
kartearen txuletak, Zabala sagardotegiaren sagardoa  
eta Eceiza etxearen postre berezia izango dira dastagai.

**Abenduak 8, igandea.** Bazkaria Zerkausian, Alejan-  
dro Goyaren idi txuleta, Isastegiko sagardoa eta Ibañez-  
Gozona etxearen postre berezia izango dira dastagai  
(14:00). Beotibar pilotalekuan zesta punta partidak  
izango dira. Lehenik, Tolosako, Andoaingo eta Zumaia-  
ko zesta punta taldeetako bikoteak ariko dira, eta gero pro-  
fesionalen txanda izango da: Egiguren II eta Suso, Oihar-  
an eta Ibai Erkiagaren aurka lehiatuko dira.



## ZINEA

**La vida de Adele.** Zine foruma,  
jatorrizko bertsioa. Abenduak 6,  
ostirala. Tolosa, Leidor (19:15).

**Aviones.** Haurrentzako filma.  
Abenduak 6, ostirala (17:00) eta  
abenduak 7, larunbata (17:00).  
Villabona, Gurea.

**Enderen jokoa.** Abenduak 7,  
larunbata (19:30) eta abendu-  
ak 8, igandea (17:00). Haur  
zinea. Tolosa, Leidor.

**Vivir es fácil con los ojos ce-  
rrados.** Abenduak 7, larunbata  
(22:30); abenduak 8, igandea  
(19:30 eta 22:00) eta abenduak  
9, astelehena (20:30). Tolosa,  
Leidor.

**Vivir es fácil con los ojos ce-  
rrados.** Abenduak 9, astelehe-  
na. Villabona, Gurea (21:00).

## ERAKUSKETA

**Politxinelaren Bideak.** Tolosa,  
Topic. (11:00-13:00 eta 16:00-  
19:00).

**Inbasio Napoleonikoak.** Tolo-  
sa, Aranburu Jauregia (17:30-  
20:30).



# Agenda

**Collage.** Analie Eleno Gabriel. Tolosa, GKO Gallery, Kale Nagusia, 24.



## KZ GUNEA

### Tolosa. Internet ikastaroa.

20 orduko ikastaroa. Abenduak 6-9 (09:00-11:00).

**Tolosa. Google apps.** Abenduak 9, astelehena (11:00-13:00).

**Tolosa. Open Office Writer oinarritzkoa.** Abenduak 9, astelehena (16:00-18:00).

**Berastegi.** Abenduak 9, astelehena (09:00-10:45).

## BEDAIO

**Mus txapelketa eta gaztaina jana.** Abenduak 7, larunbata.



## HITZALDIA

**Nazioarteko Gaurkotasunari buruzko Mintegia.** Jesus Torquemada. Abenduak 9, astelehena. Tolosa, Topic (19:00-21:00).



## ZIZURKILGO KIROL ASTEA

**Abenduak 9, astelehena.** Antartika Urtzen erakusketaren inaugurazioa. Zizurkil, Atxulondo Kultur Etxea (18:00).

## KONTZERTUA

### Santa Maria Musika Kapera.

Abenduak 7, larunbata. Santa Mariako kaperak 80 inguru kide ditu: hari eta haize orkestra, organista, abeslariak eta zuzendariak osatzen duten taldeak ondoko programari ekingo diote: Madinaren *Aita*

*Gurea*, Felipe Gorritiren *Magnificat*, Felipe Gorritiren *Salve*. Zuzendaria: Luis Orduña. Organista: Jose Antonio Pascual. Bakarlariak: Axun Gaztañaga, Jexus Mari Jauregi. Joxeja García Artete. Tolosa, Santa Maria Kapera (19:00).

### Matxintxulo Gaztetxea.

Lokaltones, Sukarra 37, Talde sorpresa bat eta DJak (Jonan eta Kizt). Abenduak 7, larunbata. Asteasu, Matxintxulo Gaztetxea (23:00).

**Tolosako Udal Txistulari Banda.** Inmakulada eguneko kontzertu berezia. Zuzendaria: Iñaki Letamendia Loizaz. Laguntzaileak: Igor Agirre (tronpeta) eta Xabi Zelaia (tronpeta). Egitaraua: *Mendi Aldera*, *Bronkolo*, *Txoria Txori*, *Arrigoain*, *Baztan* eta *Adan eta Eba*. Abenduak 8, igandea. Tolosa, udaletxeko arkupeak (13:15).


## ZIRKUA

**Italiar Zirkua.** Abenduak 6, ostirala (17:00 eta 19:30); abenduak 7, larunbata (17:00 eta 19:30) eta abenduak 8, igandea (12:00 eta 18:00). Sarrerak 10 eta 15 euro, [www.ilcircoitaliano.com](http://www.ilcircoitaliano.com) webgunean salgai. Familia guztiari zuzendutako emaldia.



## JABEKUNTZA ESKOLA

**Berdinbidean Jabekuntza Eskola.** Marixe Noyaren, Berdinbideaneko teknikariaren, hitzaldia. Abenduak 9, astelehena. Anoeta, udal areto nagusia (18:00-20:00).



# Eskualdeko **uzta** Durangoko Azokan

Abenduaren 5etik 8ra bitartean, urtero legez, Durangoko Azoka ospatuko da. Landako Guneko berritasunen artean Tolosaldeko ordezkari anitzen uzta topatzeko aukera izango du bisitariak

## N. R. DE ARANGUIZ TOLOSA

Itziar Okariz donostiarrak diseinutako aurtengo kartelak luzatzen duen gonbitea bezala, eskualdeko idazle, marrazkilaria eta musikarien lanak ere «zuriaren gainean dantzan» ageri dira. Igandea bitartean

Durangoko zitak Gabonetako euskal kultur opariak eskuratzeko ekin ezinezko zita bihurtuko da 2013ko aurtengo edizioan ere.

Liburu eta disko artean ez galtzeko eskualdeko berritasunekin osatutako gida laburra da ondorengo orrialdeetan jasotzen dena. Tarte-

an eskualdean iturria duten hainbat eta hainbat aldizkari ere aurkitu ahal izango dira Durangoko Azokan: Bernardo Atxagag zuzendutako *Erlea*; Irrien Lagunak argitaratutako *Irria*; Euskal Herria Sozialistaren izen bereko aldizkaria edota Nabalralderen *Haria*, besteak beste.



Durangoko Azokako iazko irudia. ATARIA

## LIBURUAK

### AITOR ARITZETA

**Emoziok eta gaitasun sozioemotionalak**  
UDAKO EUSKAL  
UNIBERTSITATEA

Goretti Soroarekin batera, Aitor Arizeta billabonatarrek kaleratutako 252 orrialdeko ikerketa lana da honakoa. 2013an Udako Euskal Unibertsitatearekin argitaratua.



### BILGUNE FEMINISTA

**Beldurrak gurekin jai!**  
**Ekin autodefentsa feministari!**  
GAZTE SORKUNTZA

Indarkeria sexistaren aurrean erantzun indibidual zein kolektiboak proposatzen ditu Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Emaginek elkarlanean egin duten liburuak. Teoria eta praktika uztartzen dituen lan honek herriz herri Autodefentsa Feminista garatzeko tresna izan nahi du.



## BERNARDO ATXAGA

### Nevadako egunak

PAMIELA

Liburuaren atmosfera nagusia biografiarena da. Bere orrialdeetan azalduz doazen pieza guztiek giza esperientzia dute abiapuntu. Egileak bere berri ematen du haietan, zer bizi izan zuen, zer pentsatu eta imajinatu zuen Estatu Batuetako Nevadan pasatutako denboran, 2007ko abuztutik 2008ko ekainera; baina beste pertsonaia batzuk ere hartzen ditu aintzat, hurbilekoak eta arrotzak, lehengoak eta oraingoak. Lekuek ere badute garrantzia, eta batez ere desertuak.



## KARLOS LINAZASORO TOLOSA

### A zer lau elementu!

PAMIELA

Idazle tolosarrak gazte literatura sailerako idatzi du *A zer lau elementu!* Jolas-liburu bat da, poemez eta esaldi umoretsuz eta antzerkiz eta hitz eta burutazio bitxiz betetako kutxa edo gordailu bat. Haria lau elementuak dira: sua, lurra, airea eta ura.




## ASUN GARIKANO

### Kaliforniakoak (1533-1848): euskaldunen lanak Kaliforniaren esplorazio eta kolonizazio garaian

PAMIELA

Euskaldun askoren bizipen harrigarrien berri dakar liburu honek. Ameriketako lehenengo euskaldun haiek itsaso eta lur arrotzetan pasa zituzten poz eta nekeak kontatzen ditu,aldi berean Kaliforniako jatorrizko biztanleei buruzko albiste ugari eskainiz. Joseba Sarrionainandiak idatzitako hitzaurrearekin.



## KARLOS LINAZASORO TOLOSA

### Tripoli doktorea

ELKAR

Xaguxar haur literaturan argitaratua. Anbulatorioko itxarongela lepo zegoen, gainezka. Tripoli doktorea eta Olga Tokarczukowa erizaina prest zeuden gaixoak artatzeko. Udaberria iritsi berria zen, ordea, eta Tripoli doktoreak nahikoa lan bazuen sudurreko zulotik irten zitzaion geranioarekin zer egin ez zekiela.



## MAITE GURRUTXAGA OTAMENDI

### Euli bat bihotzean

ELKAR

Leire Bilbaok idatzi eta Maite Gurrutxaga amezketarrak irudiz hornitutako ipuina. Gorka arraro sentitzen da. Kafkaren Metamorfosia liburuan bezala, ezberdin jaiki da gaur. Izan ere, gauean euli bihurtu dela pentsatzen du.



## ESTI LIZASO

### Piztiak hil behar du

IGELA

Nicholas Blake-ek idatzi eta Esti Lizasok itzulitako lana da *Piztiak hil behar du*. Igela argitaletxeak kaleratuta lana da.



## MAITE GURRUTXAGA OTAMENDI

### Habiak / Nidos

TXALAPARTA

Abiadura handiko trenaren haren lurretatik pasatzen dela-eta base-ria galdu duen Simon zaharraren eta, Balkanetako gerra atzean utzita, Euskal Herrira heldu den Selma erizain bosnarraren arteko harremana da liburuaren ardatza.



## RAMON OLASAGASTI AIESTARAN

### Nire aitaren botak

ELKAR

Ramon Olasagastik haur-liburu honen itzulpen lana egin du. Liburuak Koldoren istorioa kontatzen du, euria egin zuen egun batekoa, oinetakoen armairua ireki zueneko eta oinetakoen zelatan animaliak ziruditenekoa.



## GARBIÑE UBEDA

Hobe isilik  
ELKAR

1936ko Gerran ibili eta gero, II. Mundu Gerraren amaieran Frantzia desagertutako Jose Bermejo aitona miliziano anarkistaren arrastoaren bila hasten da haren biloba Bakartxo. Inoiz ezagutu gabeko aitona hari idatziko balio bezala, bilaketaren gorabeherak, ezusteko aurkikuntzak eta horiek sorturiko zalantzak kontatzen ditu eleberririk.



## GAL 30 URTE

Euskal Editorea, S.L.

Eider Goenagak koordinatutako lana. Euskal Herriak, azken hamarkadotan, bizi izan duen garai ilunenetako baten kronika.



## IÑAKI ZUBELDIA OTEGI

Eskola sorgindua  
IBAIZABAL

Eskola itxi egin dute, eta ikasle bat lo geratu da bertan; bat-batean sutea sortu da eskolan. Orduan hasten da abentura hau. Pertsonaia atseginak eta dibertigarriak azalduko dira; eskolan bizi dira, baina ikasleak etxera itzultzen direnean baino ez dira agertzen.



## MUSIKA

### BIDE ERTZEAN

77

GAZTELUPEKO HOTSAK

Memoria historikoa pop musikarako aldarrikatu du talde tolosarrak. Familiako gertaera latz batetik abiatu dira Imanol eta Joni Ubeda anaiak -1977an Guardia Zibilak kontrol batean hildako osaba baten oroitzapena- Espainiako diktaduraren lehen urteak gogora ekartzeko.



### GLAUKOMA

Glaukoma Vol. 2  
BONBERENEA EKINTZAK

Zazpi abestiz osaturiko diskoa da Glaukoma taldearen bigarren lana, aurretiaz finkatutako ildo jarraituz baina eboluzio nabarmenarekin. Pedal hotsek eta distorsio, deelay eta abarreko efektuek euren tokia bereganatu dute, soinu garatuago bat eta indartsuago bat lortzearen.



### LA JODEDERA

Karibe Kantauri kantari  
GAZTELUPEKO HOTSAK

Disko honetan La Jodedera taldeak zenbait euskal kantu ezagunen bertsio kubatarrak ekoitzi ditu, baita euskal musikaz moldatutako Kubako doinuak ere.

Agenda 24



### OINKARI

Itsasoaren emazteak  
BAGA-BIGA  
MUSIKA IDEIAK



Euskal Herriko kostaldeko arrantzaleen emazteen bizipenak kontatzen ditu Itsasoaren emazteak DVD-CDak, euskal dantza tradizionalak (Oinkari dantza taldea), musika (Pello Ramirez) eta antzerkia (Hika Teatroa) oinarri hartuta.

### IÑAR SASTRE

Sastretarrak  
AUSART  
RECORDS



Iñar Sastre eta Alfonso Sastren 2013ko lana, CD-DA formatuak kaleratuta, Ausart Records-ekin.



### Zer berritasun darama Bonbereneak aurtengo Durangoko Azokara?

Hainbat disko, dvd eta liburu berri prestatu ditugu. Fiachras eta Sumision City Blues taldeen EPa. Tolosako Humus taldearen bosgarren diskoa, *Saurius*. Sputnik 13 bilduma, Tolosako taldeak biltzen dituen egitasmoa: Barrua Truk, Atila y los Unos, Broken Faces eta Wainot batzen dira bertan. 25th Coming Fire talde donostiarrak ere bere laugarren diska argitaratu du, *No one is here to take your call. Leave your message at the tone* izeneko. Napoka Iriak bere bigarren diskoa kaleratu du, *Arnasten Ikasteko Berriz*. Hala Bedi Irratiarentzat urte berezia izango da, 30 urte betetzen ditu eta hau ospatzeko liburu-dokumental bat eta kantu bilduma bat argitaratu du Bonberenea Ekintzak-ekin batera. Glaukomaren disko berria ere kaleratu da, *Vol.2*. Bi formatuetan eramango dugu Durangora, biniloan eta CD-an.

Dvd atalean, Andoaingo R taldeak bere azken kontzertua grabatu zuen eta Bonbereneak argitaratu du: *Azken Agurra 1995-2013*. Eta azkenik, Bonberenea Txarangaren ...*Etxean Zuzenean* dvd-a ere Bonberenean *stand*-ean aurkitu daiteke.

### Talde hauetako asko dagoeneko zuekin lanean aritutakoak dira, baina lankidetzak berriak ere aurki daitezke.

Hala Bedi Irratiarekin eta Gasteizko Gaztetxearekin betidanik mantendu izan dugu erlazioa, baina kaleratutako aurtengo lana urteetan zehar izandako erlazio hori modu material batean gauzatutako lehena da.


Talde berri gisara, Sputnik 13 bilduma azpimarratu behar da. Bilduma osatu duten taldeak inoiz grabazio estudio batean sartu gabeko taldeak dira: Atila y los Unos, Wainot, Barrua Truk eta Broken Faces.

### Zer eskatzen du bisitariak?

Publikoa berritasunei begira doa. Aurtengo altxorrek Glaukoma eta Napoka Iria izan daitezke.

### Salmenta nahikorik ematen da Durangoko Azokan?

*Stand*-a mantentzeko nahikoa. Ez da-



## Bonbereneak ahots propioa Durangon

Juantxo Arakama eta Julen Caminosen ardura da, azken lau urtetan bezala, Durangoko Azokako Bonberenea Ekintzak-en *stand*-a prest egotea. Lau egunez haiek jarriko diote ahotsa Tolosako autogestioan oinarritutako elkarteari

kigu bestelako diskoetxeek nola bizi duten egungo egoera. Bonbereneak krisia jasaten ari denik ezin du esan, beti krisian baitago. Gurea bezalako elkarteak, auto-gestioaren bidez kudeatutakoa, zailtasunei aurre egiten oihututa dago. Gurea beste merkatu bat da, ezin dugu salmenta kopuruez hitz egin.

### Zer du Durangoko Azokak? Zergatik da beharrezkoa bertan egotea?

Bonberenea, Euskal Herrian musika-gintzan diharduten elkarte garrantzitsuenetako bat dela kontuan harturik, oso garrantzitsua da guretzat Euskal Herriko kultura eta sorkuntza elkartzen den gune honetan egotea. Erakustoki gisara ere ikusi behar da.

Hurbiltzen denari, urtean zehar Bonberenean burutzen diren ekintzak, kaleratzen diren argitalpenak eta gure filosofia zabaltzeko aukera ematen digu.

### Aurrera begirako lankidetzak proiektuekin atera ohi zarete azokatik?

Lankidetzak lortzeko baino gehiago, urtean zehar egindako lankidetzak horiek ospatzeko gunea izaten da Durangoko Azoka.

### Norbanako gisara, zeren bila zoazte aurtengo Durangoko Azokara?

Onena hara joan eta bertan dagoenarekin topo egitea izaten da. Eskuak beteta bueltatu izaten gara, bai guretzat eta baita Bonberenea etxearentzat ere.



## → Merkataritza Saila



## Eguberrietan etxe ondoko saltokietan erostearen hamar abantailak

Eguberriak gainean ditugu, hiru aste eskas gertzen dira Olentzeroren etorrerarako, eta jada Gabonetako abestiak, apaingarriak, turoiak eta gainontzeko gozoak gure etxeak, saltokiak eta kaleak betetzen hasi dira. Zuhurrenek, ziurrenik erosketetako batzuk dagoeneko eginak izango dituzte, baina beste asko oraindik ere hasteko egongo dira. Hori dela eta, Tolosaldea Garatzeneko Merkataritza sailetik, Eguberriak ate joka diren honetan, eskualdean edota herrian erosteak dituen abantailaz ohartarazi nahi ditu herritarrek.

Izan ere, gugandik gertuen dagoen dendan erosiz gero, nahiz eta askotan ez ohartu, eskualde guztiari ekartzen dizkio onurak, nagusiki, bertako garapenean laguntzen duelako. Era berean, herrian lana sortzen dugu eta gas-tatzen den dirua bertan inbertitzen da. Gainera, saltoki txikien bereizgarrietako bat bada, tratu berezia, familiarra eskaintzearena, eta

horrek bezero bakoitza berezi egiten du.

Herrian erostearen beste abantailetakoa bat populazio sendotzea dakarrela da, zerbitzua eskaintzean, jende gaztea erakartzen baita herrira. Honez gain, tokiko eta kalitatezko produktuak sustatzea ere badakar, saltoki txikietan erosteak, eta bide batez, erosketa jasangarriagoa egiten laguntzen du. Hau da, kotxerik hartu gabe, joan-etorrietan denbora galdu gabe eta erregairik gastatu beharrik ez izanda, gutxiago kutsatzen dugu. Bestetik, betiko saltokiak, haurrak ginenetik ezagutu ditugunak desagertzea ekidingo dugu, eta baita, kalitatea, aukera anitza eta zerbitzu ona aurkitu ere. Horrenbestez, esan, beste saltoki erraldoietan aurkitu ezin daitezkeen abantaila guztiak eskaintzen dituztela herriko dendeak, eta hori aprobetxatu beharra dago. Animatu eta egin Eguberri hauetako zure erosketak etxe inguruko saltokietan.



Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, zeruan nagusitasuna hartu zuen ilberriak.  
Munduko hizkuntza anitzen zeruan, egun batez argia eman zuen ilargia euskara izan zen.  
Euskarak berriz 365 egunetan presente egoteko argi nahikoa badu.

## Hitzerditu



**Amaia Agirre Arrastoa**  
Bertsolaria

Ez naiz zutabegile aditua baina bai aritua, han eta hemen nire gogoetak papereratzeko aukera eskaintzen baitidate. Eta askotan ez dugu zertaz idatzi jakiten. Aste honetan, ordea, ez dut buruhauste handirik izan zeri eta zeini idatzi erabakitzen. Esker onez idatzi beharrean sentitu naiz, eta horretara nator. Aurreko alean Eider Olazarrek kuku bat egin zidan, eta nik ez dut ostrukarena egingo. Mila eta bostehun hizkik ez didate esan nahiko niokeen guztia nik nahi bezala sakontzeko aukerarik ematen, ordea. Agian ez naiz behar besteko artista hitz gutxitan asko esateko, baina ez dut eskertu gabe geratu nahi.

Egia da erditu gabeko ama naizela, baina erdibituta sentitu naizela esateko adina badakit. Niretzat ere haurdunaldi gogorra izan da. Txapelketa ere erditze baten modukoa dela esan ohi da. Eta halatsu gertatu zait niri ere. Ez dakit inoiz hainbeste mimo, animo eta besarkada jaso ditudan. Maitatua sentitu naiz. Zenbaitek begiak itxiko zituzten nire aitortza bertsoen aurrean, baina zenbaiti begiak zabaltzeko abagunea ere eskaini die. Nik bihotza zabaldu dudan orotan denak ez ziren aho zabalik geratuko, jakina. Nik ez nuen aldarrikapenik egin nahi. Zaila gertatzen da buruan eta bihotzean gai bakarra duzunean hura saihesten aritu beharra. Egoera animikoa errusiar mendi baten parekoa denean, ohol-tza gaineko emaitza ere halakoxea izaten da. Bertso bakoitza erditu egiten dugu. Batzuetan zesarea bezalakoa da, eta beste batzuetan indarka ekarri beharrekoa. Epidural bakarria entzulearen babesa da. Beraz, eskerrik asko elkar ezagutu ez arren keinu bat, txalo bat edo mezu bat eskaini didazuen guztioi. Biba zuek!

## Modan



**Manex Izaguirre Elizaran**  
Gaztea

Supermerkatu sarrerako turroiak, telebistako kolonia iragarkiak, koloretako argiak kaleetan... uda amaieratik ari zaizkigu abisua ematen: badatoz Eguberriak!

Badatoz jan-edan ugariak, urte osoko notizien laburpenak eta urte berrirako proposamenak. Badatoz familia enkontruak eta desenkontruak, eta nola ez, badatoz Eguberrietako erosketak.

Sarri kritikatu izan ohi dugu Eguberriak kontsumoaren morroi direla, baina halere ezin opariak erosi gabe geratu. Baina erostetik erostera bada alderik, non, nola, no-rentzat kontsumitzen dugun begiratzen badugu.

Modan egon beharrak bultzatzen gaitu sarri erostera, baina modak ez dituzte erabakitzen beti marka handiek, langileak esplotatzen dituzten horiek, produkzioan baliabideak xahutzen dituzten horiexek. Modan dago esaterako *Do it yourself*, edo boladan dago *slowfood* eta moda-modan dago ekologia.

Produktzio modu berriak indartzen ari dira. Lokalagoak, bertakoagoak, komunitarioagoak. Eta baita erosteko moduak ere. Zentro komertzialen urrezko aroa bukatu delakoan nago, edo hala pentsatu nahi dut behintzat.

Tolosan berriz, modan dago Artekale. Ez, Artekale ez da Goenkaleren eta Barrenkaleren arteko kalea. Artekale edo artearen kalea Tolosako Kale Nagusiari eman dioten izena da. Kale hau biziberritzeko martxan jarri duten ekimenak proiektu interesgarriak bildu ditu: eurek egin dako jantziak, bitxiak, ogi biologikoa, tailerrak... XXI. mendeko artisauek dira. Zorionak zuei, eta zorte on!

Eta guk, kontsumitzaileok, kontsumi dezagun zentzuz.



# Euskararen gazi-gofoak



**Itzaropena Urkiola**  
Irakaslea

Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian alerta piztu da. Beno, piztu dute, baina horretarako ausardia izan duenak eskua ezkutatu du. Koldarra behar da gero!

Nafarroako D ereduko 1.652 irakasleri jarraipena egin, sei orriko txostena idatzi eta datuak jaurtitzeari ekin diote. Hau da marka! Gezia bota dute, noski, orain ere euskaldunon bihotzera, min gehien egin dezaketen lekura. Gure hizkuntza bermatzen duen eredu bakararren aurka. Nork baina? Zilegi bada halakorik egitea, zilegi bada ETAzaleen edo eta alderdi politiko baten bueltan aritzea susmo txar horiek irakasleen izen ona zikitzea, zilegi bada auzitegitan dabilen presidente baten ahotik salaketa publiko horiek entzutea, norbaitek egin ditu zilegi, ezta? Alegia, Nafarroako

roako Gobernuak zer ezkutatu duela eta, gainerakoei salaketa antzuak jaurti baino egiteko hoberik ez ote?

Euskararik gabeko Nafarroaren aldeko borroka horretan pozoia baino ez dutenei, euskararen aurkako oinarririk gabeko erasotzaileei hausnarketarako gonbitea egin nahiko nieke.

Guk, euskaraz bizi nahi dugunok, ez dugu zertan erakunde baten edo besteren ahaide izan, ez eta biolentziarekin inongo loturarik izan, eta are gehiago, gure hizkuntzak ez du zertan salaketa horien jomugan egon.

Hezkuntza sistemaren hobe beharrez ariko bazarete, hobe duzue D ereduak ez diren bestelako zenbait «sistema» aztertzea, bai eta irakaskuntzatik at dauden, eta ustez gure gizartearen onurarako diharduten zenbait politikari, ministro, zinegotzi eta baita presidenteren inguruan azterketa poliziala abiaraztea.

Gutzia ez baita zilegi, eta are gutxiago zerbait ezkutatzeko aitzakiarekin egiten bada. Hausnarketa hori egin beharko du ezinbestean espainiar sutsua den nafarrak. Auzi gazi honen inguruan tarta gozo batek lagundu dezake agian? Argi dago euskara gazia egiten zaiela batzuei, eta beste batzuei aldiz, ezin gozoagoa.

**SANZ**  
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,  
7 behea  
20400 Tolosa



**errrotatxo**  
okindegia

Andia kalea, 3  
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A  
Tel.: 943 671 038

## KOMIKIA



Joseba Antxustegietxarte



## Zorionak Maier!

Larunbatean 4 urte.  
Muxu bat etxekoen partez.  
Ondo pasa!



## sarridunak

### Atarikideentzat 40 sarrera ditugu

10 atarikideentzat launa sarrera ditugu edozein saioetarako



- Orkatz Goenaga (Tolosa)
- Jose Ramon Zubeldia (Baliarrain)
- Andoni Udabe (Tolosa)
- Nerea Zabalo (Ibarra)
- Iru Aldeta Edaritegia (Villabona)
- Juan Bautista Aranzabe (Tolosa)
- Arantza Karrera (Amezketeta)
- Milagros Lopetegi (Ibarra)
- Xabier Pagola (Tolosa)
- Gorka Otxoa-Aizpurua (Anoeta)

Italiar  
zirku ikusgarria  
'bravo bravissimo'



Abenduaren 6an eta abenduaren 7an, 17:00etan eta 19:30ean  
Abenduaren 8an, 12:00etan eta 18:00etan  
Tolosako San Esteban auzoan



Sarrerak jasotzeko Atariako egoitzatik pasa

## Eguraldia



Iker Ibarluzea  
Eguraldi mutila

### Ostiralean

Eguraldiak hobera egingo du, goizean zerua nahiko hodeitsu egongo da baina egunak aurrera egin ahala ostartea zabalduko dira, eguna bukatzerako nahiko garbi geratuko da. Haizeak ipar-ekialdetik joko du eta tenperaturek zertxobait gora egingo dute, altuenak 12-13°-ren bueltan geratuko dira.

### Larunbatean


Oso giro polita espero dugu, zerua oskarbi egongo da eta tenperatura goxoak espero dira, altuenak 16°-ra iritsiko dira, hego-ekialdeko haizeak joko duelako.

### Igandean

Laino gehiago ikusiko dira zeruan, haizeak mendebaldera egingo duelako, baina ez diote eguzkiari traba handirik jarriko. Tenperaturak zertxobait behera egingo du, 13-14°-ren bueltan kokatuz.

### Astelehenean

Eguraldiak oso itxura polita hartuko du. Haizeak hego-ekialdera egingo du eta zerua garbitu egingo da. Tenperaturak gora egingo du, 15-16°-ra iritsiko da. Joera hori hainbat egunetan mantenduko da.



Ostirala  
6



Larunbata  
7



Igandea  
8



Astelehena  
9



Egin zaitez Atarikide!



Tolosaldeko  
**ataria**

**943-65 56 95**

**atarikide@ataria.info**

Tolosaldeko Atariaren papereko edizioa etxean jaso eta irratia nahiz atari digitala egiteko laguntza ekonomikoa eman nahi baduzu, egin zaitez **Atarikide**. Urtean 75 euroren truke, eskualdeko euskarazko proiektu bateratua garatzen lagunduko duzu. Ataria zabalik dago zure ekarpenentzat. Deitu 943655695 telefonora edo idatzi ataria@ataria.info helbide elektronikora. Eskerrik asko!



ataria  
prentsa



ataria  
irratia



ataria  
internet

# SHUYANA

EDERGINTZA

**Zure azalari kolore ukitu bat eman eta kalitatezko kosmetika oparitzeko aukera eskaintzen dizu Shuyanak %20ko deskontuarekin**



**Abenduaren 2tik 14ra**

Eskaintzak ezin dira pilatu

SHUYANA  
EDERGINTZA

**ESTETIKA:**

Eskolapioetako Lorategiak 3, 1A.  
Tel.: 943 675 489

**KOSMETIKA:**

Korreo kalea 1.  
Tel.: 943 671 468

ARTDECO

INSTITUT  
ESTHEDERM  
PARIS

PHYRIS  
PREMIUM SPA COSMETICS

PIROCHIE  
LABORATOIRES

